

**SINISMENAREN BETEBEARRA  
GAUR EGUN INDARTUEN DIREN  
BALOREEN ARTEAN (Eskema edatua)<sup>1</sup>**

**0.- Asmua eta esanaia**

Gaurko munduko baloreen artean kristau sinismenak daukan betebearra aztertzean, ez gabiltz gizarteari kristau fedearentzat, lotsakor, baimena eskatzen, edo fedearentzat gaurko munduan lekutxo bat aurkitu naiez. Au egin leike sinismenaren bearrizana oindino badagoala erakutsiz, edo gizarteko gaurko baloreak ain zuzen be kristau fedearagaz bat datozela egiaztuz. Jakina, guztiz bidezko litzake olakorik egitea, eta bearezko be bai, baina ez inoz be kristau sinismena aldian aldiko baloreen otsein eta eskeko biurtuz, bere mezuaren barrua ustua eta ezereztuta.

Beste au dogu asmua: kristau fedea, beti eta edozein lekutan gizon eta emakumearentzat danez, gizaki onetatik ulerkor eta onargarri egitea. Olako eta olako pentsakera eta baloreen

---

<sup>1</sup> Itzaldi moduan garatu izan da eskema modura orrialdiotan azaldutakoa. Kontutan izan, orduan, aozko estiloa dala, geien bat, aurkezpen onetakoa.

artean, zer dau esatekorik kristau sinismean zein da bere mezua? zer da bera? Gaurko munduan lekurik izatekotan ez da izango onen ispillu uts eta motel biurtuz; bere izakera guztiz bestelakoa eta, batera, munduaren biotzetik sortzen dana, agertuz izan leike benetan lekurik gaurko munduan.

## **I.- Indartuen diren baloreak**

### *1. Euskalerrin eta European*

Geroago eta geiago, Euskalerriko balore eta bizitza-mundua Europakoa da. Beti izan da Europa, eta, beste aldetik, Europaren izakera ez da era batekoa: Frantzia, España, Ingalterra, Polonia... ezbardinak dira. Olan be, alderdi askotan, baloreak onartzean atan be, nazio-artekotuz eta antzeratuz doaz. Emen, beraz, gure gogoetaren jomuga berezia Euskalerra izan arren, Europa eta Sortaldeko kultura osoa dogu begi aurrean.

«Baloreak», lenengo, esanai soziolojikoan artzen ditugu: baloreak eta, guretzat, kontrabaloreak lirakenak be bai, naiz ta, gero, gure asmua baloreak (benetakoak) lortzea eta indartzea izan. Beste era batera esanda: Zer artzen da aintzat, zer da elburu, zer da erizpide gure gizartean?

«Indarrean dagozan baloreak» zeintzuk diran jakiteko alkar osotzen daben bide bi ditugu: inkesta eta inguruko ikerketa soziolojikoak, eta geure eguneroko bizipena eta oartzea.

Galdeketak gure auzian daben erlatibitatea azpimarratu gura dot: itzen adiera ezbardina, arazoa barneratu eta erreflesionatu ezina. Esate baterako: «Erlijiosoa zara?» itaunaren aurrean, erantzuleak zer aditu bear dau «erlijioso» itzaz? Edo Jaungoikoa «persona» dan ala ez galderari ezetz erantzuten badautso, ze ideiari emoten dautso ezetza? Eta etika gaietan «bere eritziari» jarraitzen dautsola erantzuten dauanak, ba ete daki zetan oinarritzen dan bere eritzia, zeren eraginez eratu dan? Teoloji ikasketak buruturikoak be ez dira beste barik gai berba gitxitan sustraiko erantzun beteak emoteko. Estadistikak jenteak zer erantzuten dauan

erakusten dabe, eta orretan ez dabe utsik egiten. Jenteak zela-ko adierazpen-gaitasuna dauan agertzen dabe.

Alan be inkesta ikerketak zalantza barik lagungarriak dira; batez be, gizarteko geure esperientzi osoagaz bat egiten dabela

## 2. Gaurko baloreen aipamena

Adibide gisa, begitu bat emongo dautsegu estadistika zenba-ki batzuri:

### Europar (1991) [Concilium 240 (abril 1992) pág. 313-319]

#### 1. Oso garrantzitsu, edo naiko, diran baloreak:

Familia	96	2. Jainkoagan sinismena:	70,5
Adiskideak	90	3. Jainkoaren garrantzia: (10 puntutara)	5,68
Lana	87	4. Zeri emoten dautso erantzuna Elizak:	
Astialdia	82	- Nor bakoitzaren moral arazo eta bearrizanei	36
Erlegiñoa	49	- Famili-arazoeri	32
Politika	34	- Espiritu bearrizanei	54
		- Gizarte arazoei	27

### Euskalerrin (1990) [IKEI, Informe Social del País Vasco y Navarra 1990, pág. 276, 245, 18]

#### 1. Ondo izatearen alderdiak (garrantzitsuena, eta bigarrena...):

1) Osasuna	36	2. Siniste erligiosoak:	66,6
2) Familia alkartua	28	3. Semeak ez dauala sinisten agertzen:	
3) Soldata	15	badau:	
4) Ezkontza zoriontsua	8,4	3.1. Onartu	43,1
5) Bakea norberagan	5,3	3.2. Errespetatu	50,3
6) Adiskide on zintzoak	2,6	3.3. Kontra jarri	3,8
7) Lan atsegina	2,1		
8) Astialdia	0,9		
9) Kultura mailla garaia	0,7		
10) Fede sendoa	0,6		



4. *Ezkontza eta biziari buruz:*

	Onartu	Errespetatu	Gaitzetsi
- Ezkontza aurretik alkarregaz bizi	58,6	27,3	12,5
- Ezkontza asmo barik	50,8	30,9	15,9
- Seksu bereko bikotea	26,9	37,4	31,1
- Aurrik ez izateko erabagia	53,4	38,3	8,4
- Dibortzioa txarto joanez, aurrak izan arren	47,9	37,8	11,5

**Españan (1991)**  
**(Boletín CIRES, noviembre 1991, pág. 12)**

1. *Gai garrantzitsuetan erabagiak artzean zer arduragarri:*

	asko	naiko	gitxi	ezerez
- Jenteak pentsa daikena	5	14	29	51
- Familiak pentsa daikena	26	47	16	11
- Adiskideak pentsa daikena	5	25	34	35
- Norberaren erlegino sinistek	11	30	25	32
- Norberaz pentsa daikena	42	42	7	7
- Onurazko izan daitekena	37	45	11	5

Inkesta oneek be erakusten dabenetik eta geure esperientziz dakigunetik olako baloreak erakarten dabela esan geinke gaurko gure gizartea:

- Igaropena (tolerantzia), aniztasuna (pluralismoa, ez-bear-tzea), askatasuna, zuzentasuna, mundu alkartuagoaren be-arrizana, abertzaletasuna
- Baita beste olakoak be: Kontsumismoa, besteak baino geiago izan eta eukite, ondo igarotea, moda eta barrikeria, askakeria,

Gizarte kontrajarria dogu (aniztasuna ain zuzen): ez dago sistema bateratu baten sartzetik Kristautasunaren ondareak, ilustrazio eta modernitatearenak, eta posmodernitatearen ezau-garriak. Eskemak marratu leitekez, nastean dabiltzan baloreok argitzeko, baina lagungarriak baino ez dira. Gizarteko erizpide eta jokaera oneen sustraiak guztiz ulertzea oso zaila da.

Alkarren kontrakoak dira posmodernitatearen ardura-eza, momentuko atseginzaletasuna, eta konpetentziak eskatuta burutzen dan araupeko lan gogor iraunkorra, esate baterako. Baina barrurago alkar lotura euki leikee: bide ezbaridinetatik norbere atsegina nausi eta elburu izatea. Benetan kontrajarriak aipatutako au eta giza-duintasuna, anaitasuna, solidaritatea ditugu.

## **II. Zertzelada arduragarri batzuk**

Ikuspegi onetan, dato ezezkor arduragarriak agiri dira guretzat: erlejiñoa (fede-mundua), bere edukirik gurenakaz (Jaungoikoa, Kristo, onen mezu eta gizabideagaz) bigarren maillara jatsi dala gure gizarte kontzientzian. Geure esperientzi orokorraz gainera, emen ditugu dato batzuk be:

- Jaungoikoaren garrantzia, Europan, 5,68 (amar punturen barruan).
- Semeak ez dauala sinisterik agertu ezkerro, Euskalerrin 43,1 onartu egiten dabe.
- Ondo izatearen alderdien artean, «fede sendoa» izatea amargarren lekuan dago, 0,6 gaz.
- Balore oso garrantzitsu eta naiko garrantzitsuen artean, erlejiñoa, Europan, bostgarren lekuan %49 puntugaz.
- Bizi eta famili etikari buruzko datoak. Eta konpetentzia, ospea, edozelango irabaziak, norbera ondo izatea, bizitzako erizpide eta indarra. Au gogoratuz ez dogu gure gizartea baltzitu gura, baina aipatu ditugun alderdien antzekorik bada autortu bear dogu.



*Gogoeta biri emoten dautse bide egoera onek:*

1) Kristau sinismena ez da, antza, garrantzizkoa, Jaungoikoa ez da garrantzizkoa, Absolutoa ez da absolutoa (soziologikoki, askorentzat).

Teologo batzuk arin eta erraz jarten dira erantzun eta konso-lazino bidean bereiztapen au eginez: Erreinua eta Eliza, Eban-jelioa eta Eliza.

Eta Eliza (edo Elizako agintariak, beintzat) erasota, urtenbi-dea aurkitu dabelakoan geratzen dira. Jakina bereizkuntza ori guztiz zuzena dana, eta jakina Elizan asko astindu leitekena, berariz eliz-gizon eta eliz-agintarietan. Baina, gauzak olan iza-nik be, arazoa beste dogu, askoz sakonago eta errotikoagoa: Non da Erreinua, non da Ebanjelioa?

Itaun au egitera beartzen gaitu aipatutako alderdien bizipe-nak. Gure egoera onen aurrez aurre ezarri daigun orain erleji-noa garrantzizkoa zaneko aldia izugarrizko egiteak burutu izan dira Jaungoikoaren izenean, edo, beinik bein, bere sinismena-ren barruan: erlejino-gerrak, kruzadak, inkisizinoa, errien za-palketak (500 urte aurten europarrak Ameriketara eldu zirala, baina ez da inondik be bakarra), koloniak, erasoak... Beste al-detik, eta olako egiteetatik guztiz aparte eta urrin be, erlejino bizikizun indartsua bildurrezkoa izan da sarritan bizitzaren be-rezko zama astuntzen ebana.

Geiegizko illunaz margotzen dogula, leengoa uste bada, las-ter etor geintekez bat: ori ez da dana, ez gitxiagorik be; baina olakorik naiko, edo asko, gertatu izan da.

Istoriatik artutako kontrako au gogoratzeak ez dausku gai onetan ezer konpontzen; gure arazoa orain beste da, eta orre-tan jarraitzen dau. Baina arazoaren guna obeto ikusi eta bene-tako ikuspuntutik aztertzer lagundu daikigu:

a) Garrantzizkoena ez da explizitoki, argi jakitez Jainkoa (eta kristau sinismenaren balorak) baieztatzea, giza-izatean, gi-

za-bizitzan egitez eta biziz baieztazea baino. Zerrendan bigarren edo bostgarren maillan agiri dana Jainkoaren irudietariko bat da. Eta aipaturiko istoriako egiteetan izendatzen dan absolutoa ez zan Absolutoa: eriotza-idoloak agintzen eben or, talde eta inperioen proiektzioa ziran idoloak. Gizadiaren istorian erriak eta inperioak «euren» jainkoagaz idetifikatzen ziran, eta jainkoa eurekaz idetifikatzen zan. Olan kristautasunaren istorian be, Ebanjelioko Jainkoaren kontrakoena kontra jarritz.

b) Jaungoikoa ezin daiteke zerrendan beste balore garrantzitsuakaz guztiz batera jarri, oneetariko bat balitz lez; ez da zerrendan ez bostgarrena ez lenengoa, zerrendatik kanpora dago, eta zerrendako beste baloreen barruan izan daiteke (trazendentzia).

2) Bigarren gogoeta: Gaurko balore batzuen bidetik ze gizabide (kultura) etorriko ete da? Ze Euskalerrri? Zelako «arima» izango ete dau gure erriak? Ebanjelioa eta bertako balorak itziz, azalak, modak, konsumismoak, ondo bizitze material eta norberekoiak agindu ezkerro? Batzuren eritziak adibide modura arturik, talderen bat izateko *borondatean* ipinten dabe erri baten izakera. Beste batzuk *izkuntzan*. Biak bear dira izan be: euskera barik ez da *gure Euskalerririk*. Eta bat izateko borondaterik ez bada, egitez eta oraingoz ez da erri ori (borondaterik ez dan maillan eta neurrian).

Baina borondate utsa ez da naikoa. Ezetariko errazoi bako naia litzake, boluntarismoa, edukirik bako borondatea. Bat izatea nai dogu: nortzuk bat izan? Gu. Borondateak, beraz, «gu» bat aurkitzen dau eta baieztatzen. (Bada oni buruz, nai-ta guk ikutuko ez dogun, gogotan izan bearreko beste au be: Euskalerrriko biztanlegoa ez da *monolitikoa*. Eta, jakiña, onek bere ondorengoak daukaz).

Izkuntzak be beste barik ez dau egiten erri bat: inperioen ondorioz, esate baterako, erri baten baino geiagotan zabaldu izan dira izkuntzak. Eta izkuntzaren aurrean be bardin itaundu leike: ze eduki dau komunikazio bide dan izkuntza orrek? Bai-



na azterketa orokor au itzita, konkretoki au esango dogu: azken baten, ze Euskalerra nai dogun itxarotea askea da. Baina niretzat, «arima» bat edo beste izan, edo bapez, ez da bardin. Nik artu dodan Euskalerrik bera eratzen izan daben baloreak izan ditu, eta, beraz, *kontzientzia istorikoaren* eskariei egokiturik, nik «Euskalerra» dinodanean izakera au bizi eta aurrera joan daiten nai dot. Eta dana dala, ebanjelioa eta giza baloreak orrenbesteraño galduko balira, izaterik garrantzitsuena eta erreferentzi puntua galduko litzake.

Euskalerra barruan, ain zuzen be euskaldunak, izkuntzagaitik eta erri txikiagotan bizi diralako, sinismen eta balore-mundua galtzeko arrisku andiagotan dagoz. Alde batetik, leku guztietara eltzen da eraso (arrisku eraz beintzat): oinarri bako aniztasuna, pluralismoa (dana da balore bardinekoa batez be azkenengoa eta erakarririk andiagoa dauana). Euskeraz «defentza» (aniztasunean bereizteko erizpideak) gitxiago dauke : euskeraz balore munduari buruz entzun, irakurri, gogoketa-taldeak eta otoitz-taldeetan parte artu eta euskeraz bizi izateko aukera gitxiago<sup>2</sup>.

Ondorioz, leengo kultura (giza eta kristau baloreak) aaztutzeko arriskua, gurasoak gañdituak guztizko erasoaren andiz. Eten kulturala, zati on baten.

Ordez, giza eta kristau kultura barririk oindino sortu danik ezin geinke baieztu. Ori da gure erantzukizuna: leengoa barruan dauan kultura barria sortzea, baina onezkero aniztasunaren barruan. Baina pluralismo au dala eta, kristau kultura barri ori zer izan leiteken be ez dago argi. Alan be, ez dago orretan, olako ikuspegi zabalak asmatzean, indar larregirik galdu bearrik: izatekotan, kultura ori Barri onaren baloreak gizartean ereinez sortuko da; au da, gure eginkizuna egite konkretoetatik asten da.

<sup>2</sup> Ez da au zeaztasunetan asteko unea, ezta tokia be. Baina ezin daiteke aztu, esandakoaren ganera, geu izateko, geure barru-bizitza izan bear dogun era berean, kanpora be zabaldu bear garala, gura ala ez, eldutasun bidean jardun nai izanik. Barru-kanpo *dialektika* au derrigorrezkoa da.



### III.- Sinismenaren betebearra

#### 1. *Kristau sinismenaren absolutoa (Kristogan agiri dan Jaungoikoaren absolutoa) autortzea*

Au dogu leenengo betebearra: aniztasun, igarotze eta aldatze guztien artean sinismenaren leenengo sustraia baieztatzea.

a) Absoluto ori ez da baloreen eta gizakiaren leikide, bere «salbamena» eta baieztapena baino. Azken baten, beti eta edozein tokitan, giza-eskubide eta duintasunean, zuzentasun-kontzientzian somatzen da, eta ontasun-erruki lez somatu be. Sinismenaren zeaztasunak sarri agiri izan dira gizakiaren kontrakotzat, baina ori gizakia zeatz zer dan ez dakigulako jatzoten da, eta sinismena ez dogulako menperatzen. Baina, berez, iturrian, sinismena gizonaren salbamena da.

b) Absolutoa barriz autortuz kristau sinismena ez dala funtzionala, instrumentala, esan nai dogu: sinismenaren izatea edo beragan oinarritzen da, edo ez da ezer.

Ilustrazio ostean, eta gaur be bai, erlejinoaren gizarte-onurak erakusten ziran bere alderako. Esate baterako, erlejinoa bearezko zala gizarteko ordena eta bakea zaintzeko, etabar. Jaki-na onurakor izan bear dauana, gizonaren «salbamena» danez, baina bere egia ez datza orretan. Guztiz autonomia izan bear dau; beragan izan bear dau egia, eta ortik gero izan daiteke onurakor.

Pedagoji gisa erabilli daitekez erlejirloaren alderdi funtzionalak: baina bere izatetik ondo bereiztuz. Arrisku andia da, medio, gaillu uts biurtzeko.

c) Istoriagaz alkartu arren (gizakundean), absolutoa ez da moda eta barrikerien otseina, moden abegi ona irabazi bear baleu lez. Leengoari lotuta egoteak eta gogortasunak be ez dauka absolutoagaz zerikusirik, guztien gainerikoa da eta. Baina emen sinismenaren absolutoak barrueneko borondatea eta egia eskatzen dituala azpimarratu nai dogu.

## 2. *Batera bere apaltasun objetiboa onartzea*

Bere agerpena ez da garaipentsua, zuzen eta disditsu begia jotzen dauana.

Istori argi-illunaren parte da. Zearkakoa dala geiago esan leike, eta kontzientzian inplizitoki explizitoki baino geiago somatzen dana.

Onen ondorioz, gizartea sekularizazioan eratzen da: ez dau gizartea erlejinoak antolatzen, arrazoiak eta geiengoaren borondateak baino. Geingoaren arrazoiak aditzen dituan baloreetan oinarritzen da.

Modernitatearen ondorena dogu au. Eta ez dago atzera joaterik erlejinoaren eta gizarte bizitza antolaketaren bereizte onetatik. Erlejiñoak *ofizialki* eta *guztientzat*, gizarte osoarentzat, ezarri leiken antolaketari buruz baieztatzen dogu au. Baina ezin leike ukatu sinismenak, sortzen dituan eritzi sakonen bidez, gizartean eragina dauanik. Sinismenak agertzen dituan baloreok geiengoaren arrazoibide eta borondate asketik igaroten dira, eta orretan, gizarte osoari baloreok ezartea egoki dan ala ez aztertzen dau arrazoibide orrek.

Leku onetan, Europako kristau sustraiak aipatzea teologo batzuentzat susmo txarreko edo gaitzesgarri dala dirudi, leengo kristaudi izakera osoa artzerako deia balitz lez. Olakorik be izan leitekenez, bidezko da erne jarri eta bereizkuntza argiak egitea. Baina oarpen eta bereizkuntza guztiokaz, teologoak ezin leike kristau sustraiak bizi azoteko guraria galerazo. Bestera, Jesusegan sinistea, bere mezuaz gizartearen arima araztea, kaltegarria dala gizartearentzat adieraziko leuke.

Iru oar gogoratu bear dira auzi onetan argiago ikusteko:

a) Kristau sinismenak ez dau berez inondik onartzen bera beartuta ezarterik, bere izakeraren kontrakoena da eta. Istorian gertatutakoak, beste jazoera askoren antzera, istoriaren zoritxararen zati izan dira, eta leengoa zuzen epaitzea batzuetan zai-



lla bada be, guretzat ez dira inondik onartzekoak, arbuiatzekoak baino.

*b)* Ez dau onartzen kristau sinismenak beragaitik inor giza-eskubideetan diskriminatzerik. Askatasuna eta begirunea, beraz, guztientzat giza-baloreak zaintzen diran artean, Esate baterako, agintariak beste siniste batekoak, nai siniste bakoak, izatea zearo onartu bear dogu gizartean. Jakina, beste giza-alderdietan ez, naiago izatea ez da beste barik diskriminatzea.

*c)* Kristau sinismena ez da onartu bear gure sustraietakoa dalako (arrazoi kultural eta istorikoakaitik), guztiz beragaitik baino: ori da bakarrik fede maillako erabagia, eta bestera fedea ez da fedea, Sustrai kulturalak aipatzea bide eta lenengo pedagogia izan leiteke bakarrik,

Eta sinismena errien bereizgarri be ezin leiteke izan negati-boki; au da, kristau erriak ezin dagike kristau ez diranen kontra bereizgarritzat bere kristautasuna erabilli. Kristau sinismenaren esentzian datza guztientzat izatea, eta au ez besteak norbere sinismenperatuz (inperialismo erlijioso): kristau sinismena emote utsa da, askatasun dei utsa, solidaritate utsa. Ez da au onela jazoten, baina bere izate au agertuz bakarrik artu leike beste erriak euren barrueneko sinismentzat.

### *3. Barri ona, barri ona lez agertzea, istori barruan, lurrean*

Au da gaur egun kristau sinismenaren eginkizunik sakone-na, eta leenengo ta bein, berari begira, benetan zer dan uler-tzeko, Onegaz, sarri bere barri-on izate ori estalduegi egin dauala adierazten dogu, eta gaur orregaitik eta giza-kontzien-tziak jasan dauan aldakuntzagaitik uler-gaitxago biurtu dala as-matzen dogu.

*a)* Orretarako, Kristoren bizikizunera urreratu bear ditugu personak. Ori barik, dotrina, betebearrak eta oikuneak ikasiko dabez, baina ez dira kristau personalki aurkitzea, eta Kristok

dituan bizikizunak (sentiera-pentsaera) somatu eta artzea. Esperientziak dinoskunez, eta guretzat ulertillun izan arren, au ez da bein ta betiko gertatzen. Bein ta barrero barriztu bear da, benetako kristau alkartearen barruan.

*b)* Biziaren aldeko, giza-duintasunaren aldeko, solidaritatearen aldeko azaldu bear dau asikeratik kristau sinismenak. Aldeko: balore oneekaz bat egiten dauala, eurakaz identifikatzen dala. Orrela ulertu bear dira bere eduki guztiak, «sineste-dotrina» eta morala. Ez da lurreko eginkizun onetan agortzen kristau sinismena, baina ori barik ez da bera, ukatu egiten da.

Solidaritatea, batez be irugarren munduari buruz, eta geure arteko laugarren munduari buruz: sinisgarritasunik andiena gaur egun au dogu; eta sinismenarentzat eskandalurik eta oztoporik gogorrena. Egiteko au ez da burutzen besteak sinistu dagien, sinestunak beste barik bete bear daualako baino. Fedearen egia dago jokoan (anaitasuna eta errukia, solidaritatea): sinismenak dinoan Jaungoikoa dan ala beste geure idoloen bat. Jesukristoren Jaungoikoa galtzailleena da: giza-kontzientziaren bidez itxaropenik ez dagoan lekuan itxaropena (bizia, duintasuna, solidaritatea) sortzen dauana.

Euskalerrik eta Europak kristau sustraiak berraurkitzeak leenengo ta bein au esan gurako leuke mundu guztiarentzako bakkea eta zuzentasuna lortzea bere elburu nagusizat jartea.

*c)* Sinismenak, askatasunez, gure gizarteko baloreen kritika egin bear dau, euren garbitasun eta beterantz eroateko.

Demokrazia (askatasunaren eta giza-duintasunaren jaurpidea, azken baten) ez da demokrazia, geiengoaren agintekeria bada: argi dago geiengoak injustiziak onetsi leikezala, batez be bere onurarako erabagietan.

Estadu «demokratikuak» ez dira demokratikuak beste erriak zapaldu edo bertanbera izten dabezanean: demokrazia-idea mundu guztiagana zabaltzen da, eta bitartean ez da bera izatera eldu (taldeen norberekeri atondua be izan leiteke).



Demokrazia ez da egiaren epaille eta ordezeko, eta ez baloreen ezarle edo sortzaille.

Orregaitik, aniztasuna (pluralismoa), demokraziaren eta askatasunaren ondorena, erantzukizunagaz alkartu bear da gizartean: aniztasunaren arriskurik nabariena erlatibitatea dogu, eta azken baten indiferentzia eta ardura-eza (gaur egitez gaillenduz doana)

Guk artu dogun Euskalerriko sustraietan nik uste izan dirala (ez osorik eta beti), esate baterako, erantzukizuna, zuzentasunaren zentzuna, begirunea (lotsa), bizitza apala, zintzotasuna, balore batzuk gaingainetik aipatzeko. Jakina akatsak be izan dirana; baina olako baloreak naiko eratzen izan dabe guk artutako erriaren gizabidea. Ezezkor izan barik, kultura au, kristau sinismenagaz batera, arriskuan dagoala autortu bear dogu. Gure kristau mezuak balore orreek eta solitaritatea indartu bear ditu. Abertzaletasunaren aurrean (gaur oindino indarrean dan bitartean, egunen baten oso bigarren maillara jausi leiteke eta), eta beti ondo-izatearen aurrean, batez be solidaritatea azpimarratu bear da beste ainbestean.

#### *4. Positibora eta baiezkortasunera jo*

Orrela egin eban Vat. IIak, arrazoiz, nai ta gure gaurko ikuspegitik guk obeto ikusi munduko drama ikaragarria eta sakon aldatu bearra argiago markatu bear ebala. Gatxa da gaur baikortasuna, urteak joan eta urteak etorri naiko illun ikusten ditugu arazoak eta. Baina, azken baten, baikortasunagaz dago zutik kristau sinismena eta aregaz jausten da. Munduko txarrari ezin leikio ez-ikusi egin, eta aipatu dogu sinismen profetikua ezinbestekoa dala, baina au berau be positibora joaz. Kristoren grazia andiagoa dalako (Erm. 5,15.17.20), eta mundua Jainkoaren mundua izanez, bere eraginak ixillean eta ezkutuan diardualako. Eragin onen zantzuak ikusi bear ditugu eta indartu.


Orretarako, ebanjelioaren argiaren indar objetiboan uste ona izan bear dogu: ain zuzen ori da sinismena izatea. Sinismen au bein ta barriro biztu bearrekoa dogu, otoitzaz eta biziz.

LUIS AROSTEGI

Kristau sinismenari buruz, gaurkoari eta geroari begira, arlo eskerga gelditzen jaku Apaltasunez gogoketa jokera bear dogu, aurrera jatorkun mundua ez dogu menperatzen eta. Alan be, bitartean, eguneroko pausu txikiak eta ekintza ixilla dira ziurrena eta emonkorrena.

*Oarriz, 1992 irailak 1*

*Luis Arostegi*



ESTUDIO  
FOTOGRAFICO

**ARGALZKARI**

*Ezkontzak - Argazki gaiak saldu - Argazki-aldaketak  
Lauki-ertz ipinketa - VIDEO - Plastifikatzeak  
Fotokopiak (Txikitzeak)*

\*\*\*\*\*



San Miguel kalean, 14  
Urrut: 673 0509

**48340 Amorebieta**

JUAN MANUEL SASUATEGI

Trañabarren, 13 Bloque 1-4  
Urrut: 681 1009

**48220 Matiena (Abadiano)**

AVISA: 444 3500 - Abonado 868